

Hasi da insumisoen epaiketen dantza



Adolfo Afonso Undabarrena

DROGETENITTURRIren aurreko zenbakian iragarri genuenez, hilaren batean, Bilboko Epaitegi berrian, Jose Antonio Saceda gazte ermuarra epaitu zuten, ejerzitoari, ez soldaduzka ez ordezeko zerbitzu soziala eginez, lagundu nahi ez izateagatik. Gure herriko gazte baten aurka arrazoi honenagatik egin den lehen epaiketaren aurreko egunetan, Ermuak gazte honekiko elkartasun kanpaina zabal eta originala bizi izan du, Kakitzat talde antimilitaristaren eskutik. Udal Batzak onar zezan, absoluzioa eskatuz aurkeztutako mozioak 2.900 ermuarren eta herriko 28 kolektiboren babesa lortu zuten, euren sinaduren bitartez. Azaroaren 25 eta 26an insumisoen kontrako epaiketak arbuaiatuz, jai giroan burututako ekitaldi guztietan -rock kontzertua, txistorra jana, futbol partidua, manifestal-

dia, folk kantaldia- jende ugari hartu zuen parte. Epaiketaren bezperan, Udaletxeko Batzar Aretoa jendez gainezka zegoelarik, EAJ-ko Ander Salaberriaren abstentzio bakarrarekin, arestian aipatutako mozioa onartua izan zen. Bilboko Epaitegira 50 bat lagun joan ziren elkartasuna adieraztera, eta handik itzultzean, arrazoi berberagatik, geldialdi bat egin zuten Ermuko Institutu eta Unibertsitateko ikasle askorekin batera manifestazio bat burutzeko herriko kaleetan zehar.

Epaietari dagokionez, gauza handirik ez, 15 minutu eskas iraun zuen, fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuten, eta epaileak defentsaren lekuko gisa joandako bi zinegotzietariko bakarra onartu zuen. Hau dela eta, Ermuko Talde Antimilitaristaren partaideen ustez *"epaiketa hauek fartsa hutsak dira; sententzia alde z aurretik erabakita dagoenez, epaileek, abokatuari zein lekuko-ei, onartzen dituztenean, ematen dieten tarte urria, kiniela betetze-ko edota beren fantasia sexuale-tarako aprobetxatzen dute. Horrela Iruñean bi minutuko epaiketetan erabakitzen da jendea bi urte espetxeratzea; lotsagarria da".*

Udal Batzak mozioa aztertu eta onartu aurreko astean, Ermuko beste bi insumisori (guztira 30



Miguel Luque Baena, Ermuko lehen insumiso epaituarekin.

dira) heldu zitzairen epaituak izateko data. Hau zela eta, absoluzio eskaera hiruen izenetara egokitzea erabaki zuten antimilitaristek. Bigarren epaiketa, Miguel Luque Baena "Matxakas"ena, hilareñ 7rako iragarritako bazegoen ere, konstituzio-Kontzepzio jai-zubia zela medio, atzeratu egin da, eta gaur egun "Matxakas" berak ez daki noiz epaituko duten. Epaietarako data jarrita duen hirugarren insumisoa Adolfo Afonso Undabarrena "Adolfito" da. Honek datorren urteko urtarrilaren 26an bere burua aurkezteko agindua jaso zuten, eta "Matxakas"ek bezala, bi urte lau hilabete eta egun bateko eskaera fiskalari egin beharko dio aurre.

Azkenik, jakin berria da lau garren gazte bati ere iritsi zaiola agindu hau, Jose Antonio Martinez Carbajori alegia, martxoaren 15erako.

Hau guztia ikusita, baliteke udaberri aldera, nahiz eta gizartearen babesa eduki, Ermuko gazteren bat atxilotua izatea. Posibilitate honen aurrean antimilitaristek jarrera garbia dute, "ez dago insumisioa geldituko duen espetxerik" errepikatzen dute behin eta berriz, eta ikusitakoa ikusita, leloak dioenak egia dirudi. Lehena, ez bakarra ez azkena.

Manuel Moreno



Pub

SCORPIO

Zubiaurre, 21 behea
ERMUA

ZABALA


BURDINDENDA

Zorionak!

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

MUGA



KIROLAK

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

DULCILANDIA

- ✓ **Gozokiak**
- ✓ **Fruitu sikuak**
- ✓ **Urtebetetze opariak**

Zubiaurre, 14

ERMUA